

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a / 721. zenbakia

SOZIOLOGIA/ Herritarren artean inkesta egin behar dute

Udaleko zenbait zerbitzuren gaineko herritarren iritzia jakin gura dute

UBANE MADERA

Ekainaren 15etik abenduaren 14ra bitartean, Udalak lan soziologiko bat egin behar du garbiketara, lorezaintza eta garraio zerbitzuekiko herritarren iritzia jakiteko. Edozelan ere, zerbitzuon gaineko kexa gutxi jasotzen dituztela jakinarazi digute Udaletxetik.

Herriko lorategiekin eta herritarrek konforme dauden jakin gura du Udalak. Kaleen garbiketara ere herritarren gustura egiten duten jakin gura du eta autobus urbanoak, herriko taxiak eta taxi-busak herritarrek behar duten zerbitzua ematen duten edo ez. "Jakin gura dugu zerbitzu horiekin lotuta hartu ditugun erabakiak zuzenak diren edo zerbait aldatu beharra dagoen. Oro har, jendeak zerbitzu horiek zela ikusten dituen jakin gura dugu". Hala adierazi digu Zerbitzu eta Obra Saileko teknikari-buru Moises Altunak. Halaber, zera ere esan digu: "Ia-ia esanguratsuen da kexa gutxi izaten ditugula, telefonoz bat edo bat, baina bestela hona ez da ia inor etortzen. Dena dela, pentsatzen dugu beti dagoela hobetzeko bidea". Eta horregatik hasi dira lan hori egiten.

ZERBITZU OROKORRAK

Eta gaineratu digu zerbitzu horiek aztertzea erabaki dutela



Besteak beste, lorezaintza zerbitzuaren gainean galdetuko du Udalak.

"Pentsatzen dugu beti dagoela hobetzeko bidea"

"direlako zerbitzu batzuk herritar guztiendako, orokorrak". Horrela, lan soziologikoa egite-

ko ideia iaz aztertu zutela azaldu digu Moises Altunak, baina aurten arte ezin izan dutela ezer abiarazi.

Orain, pertsona bat ipini du Udalak sei hilabetez lan hori egiten. Dena dela, oraindik ez dute erabaki zein metodologia erabiliko duten.

Gaur egun, lorezaintza eta garbiketara zerbitzuak CESPak egiten ditu eta autobus urbanoarena Leintz Garraioek.

Etxetik urrun dauden arrasatearrak gogoan izango dituzte herriko jaietan

U.M.

Herriko jaiak gertu dauden honetan, etxetik milaka kilometro dauden arrasatear preso eta iheslariak gogora ekarri dituzte Senideek. Besteak beste, jaietarako ekitaldi bereziak iragarri zituzten.

Senideek gogora ekarri zuten 19 arrasatear daudela preso etxetik urrun: Huelvan, Jaenen... Eta familiarrekoek milaka kilometro egin behar izaten dituztela haiek

ikusteko, "errepideetan gure biziak arriskuan jarrit". Horren harira, jakinarazi zuten joan den astean bi arrasatearrek istripua izan zutela Jose Gabriel Urizar preso bisitatetik bueltan zetozela.

Hala, euskal presoek ezarritako kartzela politika aldatzeko eskatu zuten, "gatazka politikoa konponbidean jarriko duen prozesua gertu omen dagoen honetan eta azken egunotan egindako mugimenduen ostean, Espainiako eta Frantziako estatuei eskatzen diegu kartzela politikan alda-

ketak egin ditzatela berehala, onar dezatela euskal presoek estatutik politikoa eta ekar ditzatela Euskal Herrira". Halaber, euskal erakundeei dei egin zieten eurek ere baliabide guztiak erabil ditzaten lan horretan.

Horrez gainera, jaietarako bi ekitaldi iragarri zituzten: ekainaren 23an *Presoak Herrira* manifestazioa, 01:00etan, eta 25ean, herri bazkaria txosna-gunean, 14:30ean. Eta salatu zuten Udalak ez duela ekitaldi horiek jaietarako bere egitarauan sartu nahi izan.

Gay eta lesbianen aldeko ekitaldiak antolatu dituzte

UBANE MADERA

Ekainaren 28an, Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna da. Eta azkenaldian ez bezala, egun hori gogora ekarriko dute Arrasaten. Kale bilkura deitu dute, hitzaldi bat eta ipuin kontalaria.

Kale bilkura ekainaren 28an bertan egingo dute. 19:30ean da hitzordua, Arbolapetan. Aralar, Batasuna, Ezker Batua eta Zutik alderdiek deitu dute gay eta lesbianen eskubideak aldarrikatzeko eta defendatzeko kale bilkura hori.

HITZALDIA, MONTERRONEN

Horrez gainera, Zutik-ek beste pare bat ekitaldi egingo ditu datorren astean. Batetik, hitzaldia egingo dute ekainaren 30ean, Monterronen, 19:00etan. Pil-pile-

an dagoen gaia landuko dute, hain zuzen ere, *Homosexualitatea, Eliza eta Giza Eskubideak* da hitzaldiaren izenburua. Bi hizlari etorriko dira. Bata Aitor Urresti da. Bilboko Gotzaindegiko Gazteen Pastorealean arduradun izan da Aitor Urresti, harik eta kargutik kendu zuten arte, Elizak duen sexu dotrina auzitan ipini zuelako Urrestik.

Beste hizlaria, berriz, Mikel Martin da, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduko (EHGAM) eta Zutik alderdiko kidea (joan den urtarrilean militarrek Donostian jipoitu zuten Mikel Martin).

IPUIN-KONTALARIA, MONTERRONEN

Bukatzeko, datorren egubakoitzean, uztailearen 1ean, Joxe Mari Karrerekin *Kondoi bakoitzak bere istorioa dauka* ipuina kontatuko du, 23:00etan, Jai Zale tabernan.

LABUR

Gelman eraiki behar dituzten babes ofizialeko etxebizitzekin lotutako zuzenketa

Joan den astean zera esan genuen: "Babes ofizialeko etxebizitzekin lotutako zerrendak Obenerreka enpresaren eskuetan daude". Eta hori ez da zuzena. Obenerrekak dituen zerrendak dira etxebizitza libreekin lotutakoak. Izan ere, 2003an hasi ziren interesdunen izenak hartzen. Hain zuzen ere, Obenerrekak orain bulegoa itxita du, berritze-lanengatik; uztailearen 15ean zabalduko dute berritua, betiere, lanak garaiz bukatzen badituzte. Barkatu gaizki esanak.



JULEN IRIONDO

Martitzenean egin zuten prentsaurrekoa Arrasateko presoek, Seberren.

ISTRIPUAK/ Bi istripu izan dira Arrasaten

Oinezko bat harrapatu zuten eta kamioi batek istripua izan zuen

UBANE MADERA .

Kamioi istripua astelehenean izan zen, Kanpanzar mendatean. Haren ondorioz, mendatea lau orduz itxita izan zuten. Oinezkoa, berriz, zapatu goizean harrapatu zuen automobil batek, Gipuzkoako Foruen plaza inguruan.

Elorriori dagokion errepide zatian izan zuen istripua kamioiak. Fagorko bi makina zeramatzan, Portugalera, gero handik makinetako bat Mexikora bidaltzeko asmoarekin. Baina mendatean zihoala, guraizearena egin zuen. Eta horren ondorioz, makinetako bat errepidera jausi zitzaion.

LAU ORDUZ KANPANZAR ITXITA

Gauzak horrela, lau orduz itxi behar izan zuten Arrasatetik Kanpanzarrera igotzeko errepidea, harik eta kamioia eta makina errepidetik kentzea lortu zuten arte. Garabi bat erabili behar izan zuten horretarako. Eta jakina, errepidea itxita izateak oztopo dezente eragin zizkien bai mendatea erabili behar zuten gidariei, baita Otalora Lizentziaduna kalean zebiltzan ibilgailuei ere.

OINEZKO BAT HARRAPATUTA

Bestalde, Herrizaingo Sailak jakinarazi digunez, joan den zapatuan, hilak 19, auto batek emakume bat harrapatu zuen Arrasaten. Loramendi kaletik San



Kamioiak guraizearena egin zuen eta Fagorreko makinetako bat jausi zitzaion.

Andreserako bidean izan zen gertaera, Bolintxo okindegiaren inguruan, 09:40an. Emandako datuen arabera, Ford Focus markako automobil batek 70 urteko E.A.A. arrasatearra harrapatu zuen. Lekuko arabera, oso abiada bizian zihoan automobila. Emakumeari dagokionez, berriz, kolpearean ondorioz Eskualde Ospitalera eraman zuten, gorputzean kolpe asko zituela, eta larri. Jasotako azken berrien arabera, oraindik ere ospitalean dago.

Automobileko gidariari dagokionez, berriz, Ertzaintzak hala koetan egiten duen ohiko prozedura aplikatu eta alkoholaren froga egin zioten. Positibo eman zuten gizona, Herrizaingo Sailaren esanetan, positibo dezente altua izan zen, gainera. Horrenbestez, atxilotuta eraman zuten. Halaber, egin beharreko diligenziak egin ostean, gidaria askatu egin zutela kontatu digu Ertzaintzak, baina edozelan ere, gizona epaiketa izango duela.

ARREPEren eta Udalaren arteko elkarlana, ezinbestekoa

U.M.

Arrasateko Euskalgintzaren Plan Estrategikoa (ARREPE) lantzen dabilzan kideek batzarra izan zuten. Besteak beste, ikuspegi edo egoera orokorraren berri eman zieten Euskalgintzako 14 taldeei.

Urtean bi bider elkartzen dira Arrasateko Euskalgintzan diharduten 14 elkarteak: abenduan eta ekainean. Hain zuzen ere, ekainari dagokion batzarra egin dute orain. Besteak beste, egindakoen balantzea egin zuen Euskalgintzaren mahaiak, helburuz helburu aztertuta. Horrez gainera,

landutako bestelakoen artean, berretsi zuten ezinbestekoa zela ARREPEren eta Arrasateko Udalaren arteko elkarlana. Berretsi egin zuten, baita ere, kanpora begira AED izango dela ARREPEren ordezkari.

BARNE KOMUNIKAZIOA

Bestalde, kideen arteko barne komunikazioari begira, www.arrasatekoEuskalgintza.org webgunea tresna baliagarria dela nabarmendu zuten. Eta horretaz guztiaz gainera, gai teknikoak ere landu zituzten.

Bukatzeko urteko kuota onartu zuten, eta batzarra agurtzeko luntxa izan zuten.



14 elkartetako ordezkariak izan ziren Euskalgintzaren mahaiaren batzarrean.

Arrasateko zerbitzu eta merkatarien elkarteak, San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue!



Ibai-arte, Arrasate erdi-erdian zure dendak

ELKARRIZKETA

INES ALDAI/UDALEKO BOZERAMAILEA

“Arrasate bizi izateko eta aisialdirako herria izan dadin lortzea da nire erronka pertsonala”

UBANE MADERA

Ines Aldai zinegotzi da, EAJ alderditik. Euskara eta Kultura Sustepeneko batzordearen ardura du beregain (hezkuntza eta AUKEA ere horren barruan daude); eta Udaleko bozeramaile da urtarrilaz geroztik. San Juanekin buru-belarri dabil orain:

Ezinbesteko galdera: zela datoz San Juanak?

Politak. Uste dut guztien gustuko ekintzak izango direla eta alde horretatik pozik geratu naiz. Monterongo ekitaldiak interesgarriak izango direla uste dut.

Dena dela, askok diote ez dagoela berritasun askorik?

Egia da, niri esan didate ez dagoela aldaketarik. Baina San Juanetan zerbait berria antolatzeke, kendu egin behar duzu lehen zegoen ekintza bat eta beti esaten didate ekintza horiek bere eguna dutela... eta aldatzea ere batzuek gaizki hartuko dutela. Kenduta ikuskizunak, Monterongo edo plazako dantzaldiak, beste guztia ia-ia finkatuta dago. Bide bakarra da “kasurik ez egin” eta ekitaldi berri bat antolatu. Ezer berririk ez dagoela esaten dutenak entzun beharko genituzke orduan, ea zer esaten duten, dena kendu eta jai berri bat antolatuko bagenu. Esaterako, niri etortzen zait burura Erdi Aroko azoka. Hori da ekitaldi berri bat, baina hori antolatzeko ez dugu ezer kendu, eta hala ere, denetik entzun dugu. Badaude batzuk ohi-turak defendatzen dituztenak eta beste batzuk ohi-turak gauza berriekin integratzearen aldekoak. Adibidez, San Juanetan egin dugu ahalegin berezia lehen zegoen giro hori berreskuratzeko, baina jaiaren zentzua aldatu barik, eta erromeria ipini dugu. Hortaz, aldaketa handirik ez da izango, baina ez dugu nahi ere.

Behintzat, aldaketatxo bat



U.M.

bada: gazteekiko harremana hobetu egin duzue, ezta?

Berez, aldaketa izan zen harremana apurtzea. Penaz, baina gaizki ulertu batzuk-edo izan ziren. Baina aurten elkartu egin gara, berba egin dugu eta garbi geratu da berba eginda gauzak aurrera ateratzen direla eta konpon daitezkeela. Hortaz, aurten gazteek ere parte hartuko dute.

Jaiak albo batera utzita, lehen aldia da Udalean bozeramaile dagoela. Zer dela eta sortu zenuten figura hori?

Hasieran, ikusi zen kazetariak ibiltzen zirela teknikarien eta politikarien atzetik informazio eske, eta ikusi zen ego-

“Politikan guztia ez da txarra, nik uste nuen moduan; ikusi dut gauza onak ere badituela”

kiagoa zela figura bat izatea, prentsak harengana jotzeko. Beste arrazoi bat izan zen eta gertatzen zen askotan, proiektu bat hasten denetik bukatu arte aldaketa asko egoten direla; eta momentu jakin batean teknika-

ri bati galdetuz gero, esango dizu momentuan esku artean duena. Baina gero, arazo teknikoren batengatik-edo ezin bada egin (proiektuan leku aldaketaren bat izaten bada...), esandakoa nahasgarri izan daiteke. Hortaz, bozeramaileak egingo duena da erabaki guztien artean aurrera eramango denaren berri eman.

Eta pertsonalki, orain ikusi dudana da agian informazioa prentsak nahi baino beranduago ematen dugula. Hau da, proiektu bat ia-ia behin betikoa izan arte ez dugu informaziorik ematen. Hori aztertu beharreko puntua da.

Oker ez banago, agintaldi-ko bi urte hauek izan dira zure

lehendabiziko esperientzia politikoa; gustuko duzu?

Gustuko... Gustura nago, baina ez nuke esango gustuko dudarik. Lan guztietan moduan, gauza onak eta txarrak ditu eta balantzan jarri behar dira; eta balantzan jarrita, gauza txar guztiekin, gustura nago. Garbi daukat gustura egon ez banintz ez nukeela jarraituko. Egia da, baita ere, izan ditudala une asko dena pikutara bidali eta joateko, baina esperantza dut ondo egin ditzakegula gauzak. Hala, lorpen txiki bat izaten dudanean aurreko guztia ahaztu eta hurrengora arte segitzeko indarra lortzen dut.

Zer da gogorrena?

Batzuek politika buru-buruan dute sartuta; ni etorri naiz kanpotik. Esango nuke, sartu aurretik, ideia aldetik ez nengoela EAJ-rengandik hurbilen ere...

Eta zela bukatu duzu zauden lekuan?

Politikaz ez hitz egiten. Badaikit politika dagoela leku guztietan, baina ni hasi nintzenean hezkuntzaz eta kulturaz berba egiten..., pentsatzen nuen ásteburuetan ondo pasatzeko politikak ez zuela zerikusirik. Gero sartzen zara eta ikusten duzu zerikusia badúela, batez ere sortzen diren arazoengatik. Baina nik politika ez dut sekula aurretik ipini. Ni politika lanean nabil, baina ni ez naiz politikari sentitzen. Ni sartu nintzen kulturalan, buelta bat emateko herriari.

Horrez gainera, esan beharra dut politikan guztia ez dela txarra. Kanpotik hala ikusten nuen. Eta ikusi dut gauza onak ere badituela politikak. Eta beste gauza bat ikasi dudana da alderdiaren gainean berba ez egiten, pertsonen gainean baizik: gustuko ez ditugun alderdietan ere bada jende baliagarria, eta gustuko duzun alderdian balio ez dutenak ere badaude, leku guztietan moduan.

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 24**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ZAPATUA, 25**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- DOMEKA, 26**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 27**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- MARTITZENA, 28**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 29**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUENA, 30**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUBAKOITZA, 1**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---------------------------------|------------------------------|
| San Juan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua | Zapatua |
| 19:00 (elebiduna) | 19:00 (elebiduna) |
| Domeka | Domeka |
| 11:00 (meza nagusia (euskaraz)) | 10:00 (euskaraz) |
| 12:30 (elebiduna) | 12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua | Zapatua |
| 19:00 (elebiduna) | 20:00 San Isidron (euskaraz) |
| Domeka | Domeka |
| 09:00 (euskaraz) | 12:30 (gaztelaniaz) |
| 10:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza |
| 12:00 (elebiduna) | Jaiegun bezpera eta zapatua |
| 19:00 (elebiduna) | 19:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia | Domeka |
| Zapatua | 11:00 (elebiduna) |
| 19:00 (elebiduna) | |
| Domeka | |
| 11:30 (elebiduna) | |

OHARRAK

UME SAHARARRAK HARTZEKO

Saharako errefuxiatuen alde lan egiten duen NUBI elkarteak aditzera eman du familia bat behar dutela udan Saharako ume bat etxean hartzeko, familia batek kale egin duelako. Umeak uztailearen 9a eta 11 bitartean helduko dira. Interesatuak deitu honako telefono zenbakietara: 685 72 48 16 edo 685 72 48 17.

TOKI ARGIKOAK, GALIZIARA

Toki Argi erretiratuen elkarteak Galiziara bidaiara egingo du urriaren 16tik 23ra. Bazkideendako izenematea zabalik dago dagoeneko. Herriko gainontzeko erretiratuek uztailearen 1etik aurrera izango dute aukera. 265 euro ordaindu beharko dituzte.

KONTZERTUA GURE LEKUN

Egubakoitzean, hilaren 24an, Adunia Folk taldeak kontzertua egingo du Gure Leku tabernan, 23:00etan. Doan izango da.

EMANALDIAK, 3.60 ARETOAN

Egubakoitzean, Christian Warehouse, Loren 3.60 eta Ibai disko jartzaileak izango dira 04:00etan. Doan izango da. Zapatuan, berriz, AEBetako Yawning Man eta Neubat eta PAM taldeen kontzertuak izango dira, 22:30ean.

AEDren AGENDA

ZAPATUAN DRAGOI JANEAN LAN EGITEKO DEIALDIA

AED elkarteak deialdia egin du herritarrek zapatuan, Dragoi Janean, lan egin dezaten. Interesatuak jo dezatela AEDra.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Bi boto zurik alkatetza eman zioten Zubizarretari

Alderdiaren diziplinari eta hitzartuta zegoen hirukoari uko eginenez, bi zinegotzik zuri bozkatu zuten eta HBk lortu zuen alkatetza. Jose Mari Loitiri boto bakarra falta izan zitzaion alkate izateko behar zituen 11 botoak lortzeko. Osoko bilkuraren ostean, PSE eta EA haserretu egin ziren.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

“Aparteko”



— *Beti izan da aura aparteko samarra.*

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ikasturtea amaituta, garajejan sartu dugu 107.7ko autobusa, urria heldu artean

Eguenean amaitu genituen neguko saioak. Uhinetan barrena makina bat kilometro egin ostean, merezitako atsedena hartuko du irratiko autobusak; astelehenean *Uda Giroan* saioak hartuko du lekukoa. Goizeroko magazin horrek hainbat berrikuntza ekarriko dizkigu, horien artean, ordutegi aldaketa, 10:00etan piztuko ditugu eta mikrofonoak.

Egubakoitzean, baina, San Juan eguna izanda, jaietako zapi soinean hartu eta kalean gertatzen denaren lekuko izan gura du aur-

ten ere Arrasate Irratiak. Hortaz, San Juan egunean ere piztu Arrasate Irratia, eta 10:30etik 13:00etara bitartean zauden tokiraino eramango dizugu jai giroa, 107.7ko uhinen bitartez.

ASTEBURUAN ZER

Ohi dugun moduan, baina, asteburu honetan ere astearen laburpentxo bat prestatu dizuegu, eta besteak beste, *Dragoien orroa* liburuaz Fernando Morillok eta Roberto Izagirrek kontatutakoak eskainiko dizkizuegu:

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 15	10 °C
MAXIMOA Zapatua, 18	38 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	29 °C	10 °C	— l/m²
Eguena, 16	24 °C	12 °C	— l/m²
Egubakoitza, 17	32 °C	15 °C	— l/m²
Zapatua, 18	38 °C	16 °C	— l/m²
Domeka, 19	28 °C	14 °C	— l/m²
Astelehena, 20	24 °C	18 °C	0,5 l/m²
Martitzena, 21	22 °C	18 °C	— l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA, 24**
10:30-13:00 **SAN JUAN JAIK 2005** saio berezia.
15:00 **SAN JUAN JAIK 2005** (errep.)
- ZAPATUA, 25**
10:00 **Asteko gainbegiratu.** *Dragoien orroa* liburuaren gainean, Fernando Morillo eta Roberto Izagirre egileak; Mendiko orientazio ikastaroaren gainean, Carlos Vieira...
- DOMEKA, 26**
10:00 **Asteko gainbegiratu.**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
10:00-12:00 **UDA GIROAN** Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landá). Garaio, hondartza eta igerilekuekin konezioak. Zorion agurren tartea (Esku hartzeko, 943 71 17 31).
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **UDA GIROAN** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Zenbat pagauko zeuke igerilekura sartziarren?




ANE IZQUIERDO
Langillie



MILA MURILLO
Langillie



FELIPE IGLESIAS
Langillie



IKER NAVARRO
Langillie



AGURTZANE BARANDIARAN
Etxekoandrie



KONTXI URRUTIA
Langillie

Neuk pentsetan dot hiru euro nahikue izengo litzakela. Musakolakuek garestixek die. Udalakuek be ez die bape merkiek, baiñe horreik pribauk die. Publikue izeteko garestixe da.

Atsaldien juen eta pare bat ordu pasetako, bi eurokin nahikue izengo litzake. Banekixen umiek 2,5 euro pagau biher dauela, baiñe nagusixek bost euro... Diru asko da, neure ustez.

Hiru euro egongo litzake nahiko ondo, baiñe bost euro asko pentsetan jat. Ixe-ixe lehengo mille pezeta da hori. Egun bategaitik ez da ezer pasetan, baiñe behin baiño gehixautan jueteko...

1983an jaixo nitzen, eta daueneko nagusixen prezioe pagau biher dot. Bost euro? Hori diru asko da, baiñu bat hartzeko, gaiñera... Hiru euro kobretie egongo litzake ondo.

Aspaldi ez naz juen, eta ez dakit zelako zerbitzuek egongo dien. Bi euro pagauko neuke. Zenbat balixodau? Bost euro? Bai, askotxo pentsetan jat, atsaldie pasetako...

Nagusixen prezioe ez da horrenbestekue, baiñe hala eta be, apur bat merketu leikela pentsetan dot. Inportantiaue da umien prezioek merkiek izetie, horreik jueten die-eta asko.

USTEAKUSTE

Keinuak

Asko pozten nau ETak hartu berri duen erabakia: PP eta PSOE alderdietako hautetsien kontra ekintzarik ez egitea, hain zuzen ere. Astakeria galanta iruditzen zait, eta bazen ordua. Bestalde, oso pauso garrantzitsua dela uste dut eta gauzak okertzen ez badira, konponbiderantz abiatzen garen seinalea ere bada. Baina eragile askok dute konponbide horren giltza eta ziur oraindik bidean hainbat oztopo izango direla. Eragile guztiek keinuak egin beharko dituzte, eta ez bestearen zain gelditu, betiko erretorikarekin.

Bestelako keinuak eta oso zatarrak, gainera, Madrilen egiten dabilta. Gogoan daukat orain dela aste batzuk negoziazioaren kontra egin zutena. Non ikusi da bi aldeen arteko arazo bat berba egin barik konpondu izana? Baina PPK eta hainbat komunikabidek azken urteotan egur asko bota dute sutara, larregi, eta dagoeneko hainbat espainiarrek zeharo sinistuta daukate euskaldunekin ezin dela berba egin. Eta zer esanik ez Galiziako hauteskundeen gainean. Ez ditut guztiak zaku berean sartuko, baina sinestezina da Fragak zelana itsutzen dituen galiziarak. Batzuk feudalismoan bizi direla dirudi, jauntxoan artean, baita Madrilgo manifestaziokoak ere, gayen kontrakoak.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK KOADRILEI, TALDEEI ETA UDALARI Hainbat herritarrek esan digute oso pozik daudela aurten txosna-guneko taldeak, koadrilak eta Udala ados jarri direlako, eta egitaraua hiruren artean osatu dutelako. Are gehiago, herritar batek azpimarratu du "asko poztu" dela aurten koadrilek makala jasoko dutela jakinda. Lagun horren esanetan, "jaien eredia den makala garabi batekin jasotzea oso penagarria dela uste dut, eta zerbait ondo ez dagoen seinale. Pozten naiz adostasuna lortu dutelako, guztiok irabaziko dugu".

ASTEKODATUA

17

**EKINTZA EGINO DITU
TXATXILIPURDIK UZTAILEAN**

Txatxilipurdi gazteen aisialdi elkarteak hainbat ekintza egingo ditu ekainaren bukaeratik uztailearen bukaerara bitartean. 12 eta 16 urte bitartekoendako ekintzak izango dira, eta dene-tatik izango da: mendi irteerak, txangoak, film emanaldiak...

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



Berri itxaropentsua

Aurreko baten, Interneten nabigatzen nembilela, berri itxaropentsu bat aurkitu nuen. Munduko herrialde aberatse- nek munduko 18 herri txiroenei dituzten zorrak kitatzeko plan bat onartu omen dute. Berri horrek egun hori poztu egin zidan. Noizean behin bada ere, albiste onak ere agertzen dira-eta.

Baina nire poza poliki-poliki desagertzen joan zen, ez dut berri horren gainean beste ezer entzun-eta. Gerta daiteke ni apur bat deskonektatuta egotea, baina oso arraroa egiten zait ezer ez entzun izana. Eta horrelako berri batek eragina izan beharko lukeela uste dut. Ez dakit ezta ere zer eragin izan duen jatorrizko herrialdeetan. Suposatzen dut poztu egingo zirela, baina egia izanda ez dakit ezer, ez hemen ez han.

Nire ustetan behintzat aukerak ematea berri oso ona da. Suposatzen dut nondik norako batzuek emanda bada ere, barkatuko zaizkiela zorrak,

baina hala ere aukera berri bat da, dudarik gabe. Sinisten dut mailegu gisa bueltatu behar duten diruarentzat beste erabilpen beharrezkoagoak dituztela.

Baina berri horrek ere eragina izango du. Agian izango da Arrasaten edo inguruko herrien baten herrialde horiek utzita hemen bizi dena, edo laster etortzeko asmoa duena. Horiendako berandu bada ere, han jarraitzen dutenendako itxaropena izan daiteke.

Baina beste beldur bat ere badut, asmo hori horretan gelditzearena, hain zuzen ere. Nire ilusio eta pozak pikutara joango lirake. Baina asmo hori bururatzea eta aurkeztea ere aurrerapauso bat izanda, ilusio baten geldituko litzateke. Politia, baina azken finean ilusio soil bat.

Benetako asmoa, 18ri bakarrik ez: Herrialde txiro guztiek izan dezatela aukera, aprobe-txa dezatela eta herrialde pobrerik ez dadila egon. Utopia?

"Herrialde txiro guztiek izan dezatela aukera, eta herrialde pobrerik ez dadila egon"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ELKARRIZKETA

NEREA ELORTZA/SAN JUANETAKO AEROBITOIKO MONITOREA

“Zapatuan, lotsa guztiak etxean utzi eta animatu parte hartzera”

XABIER URTZELAI

Nereak dagoeneko bost urte egin ditu Musakolako kiroldegian aerobikeko eskolak ematen. Ondo daki eskolak zelan eman behar diren, baina zapatuko saioa ez da ohikoa izango (19:00): Monterronen, jai giroan, txosna artean... Jendea animatuko dela uste du, besteak beste, lehenago herri bazkaria egongo da-eta.

Hasteko, zeini bururatu zaio aerobitoia egitea?

Txosnen batzordekoiei bururatu zitzairen, eta bazekitenez nik eskolak ematen ditudala, neuri proposatu zidaten kontu hori. Hasiera baten ez nengoen oso ziur, zalantzak nituen, baina orain animatuta nago.

Eta, zein helbururekin antolatatu duzue hori?


Azken baten, txosna-gunean hainbat ekitaldi egingo dituzte, eta aerobitoia beste ekitaldi bat gehiago da. Kontua da egunean zehar ere giroari eustea, zerbait ezberdina egitea, eta egingo dugun saioa ondo pasatzeko aukera bat da.

Aerobitoi moduan izendatu baduzue ere, uste dut ez duzuela zehazki hori egingo.

Ez. Aerobitoi izena dauka, baina aerobikeko saio moduko bat egingo dugu. Aerobitoi batek 3-4 ordu iraun ditzake, eta guk ordu-bete edo ordubete pasatzeko saioa egingo dugu: beroketak, luzatze ariketa batzuk eta zati koreografikoa.

Eta nori egongo da zuzenduta?

Ondo pasatu gura duen edonori. Oinarrizko pausoak egingo ditugu, aerobikeko eskoletan egoten den musikarekin lagunduta; hortaz, ez da beharrezkoa izango kirol hori egiten jakitea. Txosna-gunean taula bat jarriko dute, konzertuetarako eta horrelakoetarako, eta jende ugari elkartzen bagara, taula gainetik gidatuko dut saioa. Hori bai, jende gutxi bada, behetik egingo dut.



XABIER URTZELAI

Jendea animatuko da?

Baietz uste dut. Orain dela urte batzuk ere egin zituen horrelako zerbait, eta erantzun ona izan zuen. Eta, gure saioa baino lehenago, herri bazkaria egingo dute txosna-gunean, hortaz, jendea animatuta ibiliko da. Barre egin eta ondo pasatzeko aukera paregabea izango da. Horretarako, lotsa guztiak etxean utzi eta jendea aerobitoian parte hartzera animatu gura dut.

Uste dut dagoeneko ziurtatuta dituzula parte-hartzaile batzuk.

Bai. Badakit koadrilakoek eta txosnetako batzordekoek esku hartuko dutela, horiek derrigortuta daude, akabatu egingo ditut bestela!

Zapatuan biharamunarekin egongo dira asko.

Hori ez da arazo izango, biha-

ramuna kentzeko ez dago-eta izerdia botatzea modukorik.

Zer behar da aerobitoian esku hartzeko?

Jendeari esango nioke arröpa eroso eramateko, baina ez besterik. Argi dago takoidun zapatekin ezin dela aerobikik egin. Dena dela, asko eta asko momentuan animatuko den jendea izango denez...

Zer behar du aerobikeko monitore edo irakasle batek?

Batetik gaitasun fisikoak daude, eta baita kirol hori ondo ezagutzea ere. Horrekin batera, jakin egin behar da jendeari gauzak transmititzen. Alde horretatik, garrantzitsua da lotsarik ez izatea, nahiz eta ni lotsatia naizen. Baina jendea parte hartzeko gertu dagoela ikusteak erraztu egiten ditu gauzak, eta atzean uzten ditut lotsak.

LABUR

Zesta-punta jaialdian, Miamin egondako puntistak izango dira Uarkapen

AUKEAren eta Jai Alai Sport taldearen eskutik lehen mailako puntistak izango dira zapatu gauean Uarkapen (22:00). Haimarrek eta Santik Meaberen eta Etxanizen kontra neurtuko dituzte indarrak. Norgehiagoka hori Euskadiko Zesta 36 profesional mailako lehen txapelketarako baliagarria izango da. Maila polita izango da, Uarkapera etorriko diren lau jokalar horietako hiru Miamin izan dira eta zesta-puntan jokatzeko. Sarrerak aurrez hartuz gero 3 euro ordaindu beharko dira. Egunean bertan, berriz, 5 euro.


Euskadiko Opena eskuratzeko moduan dago Jose Angel Lopez de Ikaia arrasatearra

Mendiko bizikletako Euskadiko Openean, Master 40 kategorian aurreko postuetan dago Jose Angel Lopez de Ikaia, eta geratzen diren bi lasterketan lehenengo lau postuetan helmugaratzen bada, Arrasatekoak Opena irabaziko du. Oraingo asteburuan Bizkaiko Txapelketan hartuko du esku, baina horrek ez du Openerako balio. Geratzen diren bi lasterketak Bastidan eta Mutrikan egingo dituzte. Uztailean, berriz, Espainiako Txapelketan izango da.

Iñigo Roldan arrasatearrak, berriz, min hartu zuen joan den domekan Muskizen egindako lasterketan. Ospitalera eramantzen zuten, buruan kolpea hartu zuelako. Dagoeneko ondo dago.

**Ezpeleta bigarren, Lakuntzako lasterketan**

Zuhaitz Ezpeleta bigarrena izan zen joan den astean, Lakuntza-Aralar mendi lasterketan. Maiatzean egin zituzten Aloñako Igoeran eta Zegama-Aizkorri mendi maratoian gura baino arazo gehiago izan eta gero, arazo horiek atzean utzi eta domekan maila polita erakutsi zuen. Ionut Zinka errumaniarrendako izan zen garaipena (2:10:11), eta lau minutu geroago helmugaratu zen bedoñarra (2:14:58). Zuhaitzekin batera, Haritz Kortabariak ere gorputzaldi onean dagoela erakutsi zuen, hamargarren sailkatuta (2:20:33).



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 79 78 14
ARRASATE

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UZTAILEKO ESKAINTZA/ Onartu dute datorren hilabeteko egitaraua

Film emanaldiak, antzerkia, dantza eta musika parkean

IKER BARANDIARAN

Udalak aditzera eman du uztaileko kultura programazioa. Azkeneko urteotan moduan, Monterronen film emanaldiak egingo dituzte egubakoitzetan, Lore Gazteak dantza taldeak ikuskizuna egingo du eta atzerriko dantza taldeak ekarriko dituzte.

Uztaila hilabete berezia da, gazteek oporrak izaten dituztelako eta eguraldi onak kalera irteten laguntzen duelako. Arrazoi horregatik, garrantzitsua da hilabete horretako aisialdirako ganorazko eskaintza egitea. Iritzi bera dauka Udalak. Hainbat ekitaldi antolatu ditu, eta horiek Monterron parkean izango dira.

EGUBAKOITZEROK, FILMAK

Uztaileko egubakoitzetan film emanaldiak egingo dituzte Monterronen. Lehena uztailearen leian izango da. *El penalti más largo del mundo* komedia ezaguna emango dute. Roberto Santiago madrildarra da zuzendaria (*Hombres felices...*). Hainbat aktorek lan egiten dute: besteak beste, Fernando Tejerok (*Crimen ferpecto*, *Los lunes al sol...*) eta Maria Bottok (*Silencio roto...*).

Datozen egunetan honako filmak emango dituzte: hilaren 8an, Nicole Kidman eta Sean Pennen esku hartzen duten *La interprete*; 15ean, *Be cool* komedia; 22an, *Millones*; eta 29an, *Bodas y prejuicios* komedia musikala.



Komedia horrek emango dio hasiera uztaileko kultura programazioari.

DANTZA, BARRA-BARRA

Bestalde, ohikoa den moduan, Lore Gazteak dantza taldeak ikasturte bukaerako ikuskizuna egingo du Monterronen. Hilaren 21ean izango da. Horrez gain, hilaren 28an, Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdian esku hartuko duten bi dantza talde Arrasatera

etorriko dira: Tuva errepublikako Sayani eta Futuna uharteetako Fenua, hain justu ere.

Azkenik, hilaren 2an, Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldeak kontzertua emango du, eta hilaren 30ean, berriz, Markeliñe antzerki taldeak kale ikuskizuna egingo du.

Gaztetxoendako ekintza ugari, Txatxilipurdiren eskutik

I.B.

Txatxilipurdi elkarteak ekintza ugari antolatu ditu 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako. Eguaztenetik uztailearen bukaera arte, mendi irteerak, txangoak, film emanaldiak eta beste egingo dituzte.

Txatxilipurdi elkarteak ikasturtean hainbat ekintza antolatzen ditu gazte txokoetan. Programa hori, batez ere, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta egoten da. Kontua da uztailean gazte txokoak itxi egiten dituztela, eta arduradunak konturatu direla horietako askorendako ez dagoela beste eskaintzarik. "Egia da Txatxilipurdik udalekuen eskaintza handia egiten duela, baina gazte guztiak ez dira udalekuetara joaten. Batzuek ez dutelako gura, eta beste batzuek ikasketengatik edo beste arrazoi batzuegatik ezin dutelako. Gainera, adin tarte horretako lagunek ez daukate autorik", azaldu zuen Txatxilipurdiko Elena Herrartek.

HERRIAN DAUDENENDAKO, UDA EKINTZAK
Horregatik, uztailean egitarau berezia antolatzea erabaki zuten, eta jaiegunak direla baliatuz,

egun osorako ekintzak prestatu dituzte. "Ohiko lanegunetan gaztetxoak denboraz mugatuta daude, eta ezin dugu irteera edo txangorik egin. Sasoi honetan, berriz, egin ditzakegu".

Txatxilipurdik gutun bana bidali die 12 eta 16 urte bitarteko arrasatearrei, antolatu duten programa aditzera emateko eta esku hartzeko gonbidapena egiteko.

EGUAZTENERO, FILM EMANALDIA

Eguaztenetik, hilaren 29a, hasita uztailearen 27ra arte astero afori-merienda eta film emanaldiak egingo dituzte AEDko tabernan. 19:00etarako egin dute hitzordua, eta ez da izena eman behar.

Beste zenbait ekintzatarako, ordea, komenigarria izango da aurretik apuntatzea, antolatzaileek aurreikuspenak egin ditzaitez. Hain zuzen ere, honakoetarako: hondartzara txangoa, mendi buelta, San Ferminetara joan-etorria, Zugarramurdi eta Hendaiara bisita, eta beste asko.

Horrez gain, Txatxilipurdik eta Bartzelonako gazte batzuek trukea egingo dute. Herriko hainbat gazte Bartzelonara joango dira uztailearen 11tik 17ra, eta bartzelonarrek Arrasaten egingo dute egonaldia 20tik 27ra.



Besteak beste, San Ferminetara, hondartzara eta Zugarramurdira joango dira.

MODAYANG
Erropa, zapatak eta osagarriak
Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.
Labeaga 43. Tel.: 943
53 48 68. URRETXU.

JOSE ANTONIO
ILE-APAINDEGIA
Otalora 22 behea Tel.: 943 79 42 10 ARRASATE

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontratxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Xabier Sagarna

IRAUNKOR

XABIER URTZELAI

Xabierrek Mondraguen egin euen Ingenieritza Teknikue, eta sasoi hartan goi maillako ikasketak ez euenez, Donostiara juen zan. Inglaterrara juetokotan euenien, Mondraguetik deittu eutzien lanera etorteko. Informatika departamentuen, klasiak emuten... Oin, urtebete egin dau Iraunkorren.

Ze lan egitten dozue Iraunkorren?

Azken baten, Iraunkor MU barruen dauen adar bat da, zerbitzu bat ofreziduten dauena. Eta hamen egitten doune da formakuntza iraunkorra.

Zeinek emuten dau klasiak?

Unibersidadeko irakasliek ingenieritzan, ziklo formatibuetan, ikerketetan eta formakuntza iraunkorrien emuten daue klasiak.

Eta zelako zerbitzue emuten dau Iraunkorrek?

Iraunkorrek hiru zerbitzu ofreziduten dau, hirurak formakuntzan gainekuek. Lelengue da kurso irekixek esaten jakona, eta horretarako daukou katalogo bat. Horretan katalogo horretan datoz urtien ziber emuten doun gai diferentien gaineko eskolak. Bigarren zerbitzue izengo litzake gradueu osteko formakuntza esaten jakona, masterrak... Eta hirugarrena izengo litzake eskaerapeko kursuek, enpresekin egitten doune. Enpresa batek kurso baten bihera daukonien, eskaerie egin, eta euren neurriko kursue prepartetan dou.

Jente diferentiendako klasiak die, hortan.

Bai. Kurso irekixek danondako die. Gradueu ostekuetan, barriz, gehixenak ikasketak buketu eta ikesten jarraitu gure dauen ikasliek izeten die, baiñe lanien dabillen jentie be animetan da. Eta eskaerapeko kursuek enpresetako langillindako izeten die.

Zelako kursuek emuten dozue gehixen?

Danetik emuten dou, baiñe egi-



“Eskaerapeko kursuetan, enpresen biherren araberrako kursuek prepartetan dou”

xe da azken urtiotan enpresa antolamenduen gaineko kursuek eskaketan diela gehixen. Gero datoz informatika arlokuek, fabrikaziño arlokuek, materixalak...

Eta datozen kursuek zelakuek izengo die?

Urrireko daukou hainbat kurso. Batetik, Gasteizko Merkataritza Kamarakin batera master bat daukou martxan. Horrekin batera, Bilbon egingo dou beste master bat urrixen baita be, webgunien gaineko diseinuen eta garapenen gainekue. Eta irailien hasiko da lan arriskuen gaineko beste master bat. Jakin, ondiokan aukerie daue la horreittan master horreittan izena emuteko. Eta horrekin batera,

“Gehixen eskaketan dauen kursuek enpresa organizaziñuen gainekuek die”

baiñe, beste eskola asko daukou.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?

Neu Debakue naz; hondartza. Eta ze dauko Mondraguek ona?

Hamengo jentiek lanerako daukon jarrerie.

Ze falta jatzu zeuri?

Debatik Mondraguera kilometro gutxiau.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Días de Futbol / Horrei galdera horrei, paso / Danetik entzuten dot.

Kapritxo bat.

San Juan jaixek diela-eta euki biher doun oporraldixe da kapritxo ederra.

NIREBIDAIAHURA / Mainer Heriz

Guatemalara / Urtarriletik apirilera arte

Maiderek hiru hilabete egin berri ditu Guatemalan, eta haren esanetan, hilabete behar izan du berriro ere Arrasaten dagoela konturatzeke. “Buruan etengabe izan dut han bizi izandako esperientzia, eta han egindako lagunak; egia esateko, gogorra izan da hona itzuli eta hemengo martxa hartzea”.

Maidere kirol irakasle izateko dabil ikasten, eta unibertsitatearen bitartez joan ahal izan da Guatemalara: “Hamaika lagun izan gara han, eta eskola batean egoteko asko ginenez, bi taldetan banandu ginon. Batzuk eskola publikora joan ziren, eta besteok pribatura. Publikoa zen Quetzaltenangon bertan zegoena, Gobernuaren laguntzarik jasozten ez zuena. Ni hiria baino gorago zegoen herririka bateko eskolan izan nintzen, eta alde handia zegoen. Publikoan, arazoak zituzten familietako umeak zeuden, eta ikusten genuen ume horiek afektibitate behar zutela, maitasuna behar zutela. Eskola horretara joaten ginenean berehala botatzen zitzaizkizun ume guztiak gainera. Goiko eskolakak lasaigoak ziren, ez zituzten horrenbeste arazo, eta eskolak hobeto ematen genituen”.

Maiderek eta beste hamar lagunek bi hilabete egin zituzten eskolak ematen: “Goizetan egiten genuen lan, han ez zeukatelako argindarririk eta arratsaldeetan umeek lan egiten zutelako. Goizeko lehenengo orduan hotz egiten zuen, 2.500 metrora geunden, eta urtarrilean 09:00etan hasten genituen eskolak”. Eta, bi hilabete horiek hango familiekin egin zituzten: “Hasierako egunak gogorak izan ziren. Gutxi daukate, baina daukaten guztia emateko daukate. Oso gustura egon nintzen eurekin. Talo moduko opilak jaten zituzten, eta bestela, babarrunak, zopa... Lehen ez nituen babarrunak gustuko, eta han, gosaltzeko, bazkaltzeko, eta baita afaltzeko ere. (Barre). Ohitu egiten zara; behin okela ekarri zuten, eta konturatu nintzen neuretako ekarri zutela”.

XABIER URTZELAI



Aitilan lakuan egindako erretratu.

“Bisitaria beti egongo da eurak baino hobeto, gutxi badute ere”



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Jili Jili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxe: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behe. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxe: 943 79 34 26
emun@emun.com

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78/ Faxe: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ETXE

ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxe: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA

BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxe: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

BITART

**Larraitz Ugarte
Maidor Morras**

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

IDIOMASTERKOAK TOLOSAN, 'PARLEZ-VOUS FRANCAISE'?

Joan den hilean egin zuten Idiomasterren frantsesa ikasten dabilzanek urteroko bidaia. Normalean Iparraldera joaten dira, baina oraingoan kilometro gehiago egitera animatu dira. Egubakoitzetik domekara arte ibili ziren Tolosako (Frantzia) eta Albiko inguruetan. Herriak bisitatu, ikasturtean zehar eskolan buru-belarri ibili eta gero frantsesa praktikatu... Tolosan, han ikasten dabilzan ikasle euskaldun batzuekin elkartu ziren, eta berehala konturatu ziren han giro ederra daukatela. Hori horrela dela egiaztatzeko, parrandan ibili ziren zapatu gauean. Esaten dutenez, alkoholak azkartu egiten du burmuina. Baina baita mingaina moteldu ere.



JAVIER GARTZIA ETA PATXI IZKUE, MUSEAN JAUN ETA JABE

Eguraldi ederra egin zuen joan den zapatuan, eta hori izan zen San Juanetako Mus Txapelketak izan zuen kontrariorik gogorrena; antolatzaile lanetan ibili zen Roman Lopezek esan digun moduan: "Jendeak musean jokatu baino gurago izan zuen hondartza". Hala ere, txapelketa biribila izan zen, eta erretratuko Javier Gartzia eta Patxi Izkue izan ziren onenak. Uste baino parte-hartzaile gutxiago izan zirenez, guztiendako izan ziren sariak, baina inork ez zituen bikote horrek beste sari jaso. Erretratuko dragoi ikusgarri horrekin batera, Kuku dendak emandako opariak aukeratu zituzten irabazleek. Eta, antolatzaileek bereziki eskertu gura izan diote datorren urtean erretiratu den Kuku dendako Angel Lasagabasterri emandako laguntza.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



SAIZAR

Sagardo Naturala



Distribuciones
GORBEA

SAIZAR sagardoaren banatzaile ofiziala. Pol. Ind. Kataide · 20.500 ARRASATE - Tel. 943 771 417

www.sidrassaizar.com



ALDEDI

Biteri 8 · ARRASATE · Tel.: 943 79 13 05 · Faxa: 943 79 13 84

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Non dago argazkian ikusten duzuen eskultura hori?
Arrastoa: jai giro bete-betea dago leku hartan egunotan.

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Mendisol ekilore-olioa
1 litro

0,77€ 128 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

OSKAR ORUErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Oskar!
Galderen erantzun zuzena:
Arrasateko Euzko Gaztedi.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasatera trena iritsi zenekoaren gainekoa

'ARRASATE 1936 BELAUNALDI ETENA'

Trenbidea Arrasateraino zela eta zergatik iritsi zen kontatuko dugu oraingo honetan. Garrantzitsua izan zen hura herritar gehienendako. *Arrasate 1936 Belaunaldi Etena* liburuak dakarren kronika erabili dugu horretarako. Zera dio hark: "Union Cerrajera sortu zen une beretik etengabea eta nabaria da trenbidea den bezalako komunikabide hurbil batez baliatu ahal izateko interesa, behar beharrezkoa baitzen; izan ere, ikatz eta burdin kantitate handiak behar ziren enpresak funtzionatu ahal izateko, eta kantitate horiek zailak ziren errepidez garraiatzea, atzerapen handiak izaten zirelako, eta kostuak handitu egiten zirelako. Arrasatetik hurbilen zegoen trenbide geltokia Bergarakoa zen, haraino iristen ziren lehengaiak, eta handik igortzen produktu landuak, Bizkaiko meategietara eta kaira, portura iristeko.

Union Cerrajerako zuzendaritzako bazkideak ministroen kontseiluko buru Dato jaunarekin biltzeraino iritsi ziren, eta lor-



Argazkiak erakusten du Arrasaten trenaren etorrerari herritarrek egin zioten ongietorri beroa.

tu zuten 1914ko uztailean Martila-Gasteiz-Lizarrako trenbidea eraikitzeke lege proiektua onar zezatela; lanak berehala hasi ziren, eta 1917ko abenduaren 22an iritsi zen Arrasatera lehendabiziko trena.

1919ko urriaren 12an Gasteiz-

*1917ko abenduaren
22an iritsi
zen Arrasatera
lehendabiziko
trena*

Mekolalde trenbidea ireki zen, han, Mekolalden, Vasco-Navarro trenarekin lotzeko.

Trenbide zail bihurri hark hasieratik fabrikaziorako kokaleku oso egokia ez zen leku bateko produktu batzuei irteera emateko modua egin zuen, hasieran

ez oso merkea, baina gerora bai, garraio kostuak jaitsi zituen-eta.

Bistan dago trenbide hori jartzeko ez ziola Union Cerrajerari bakarrik mesede egin, herri osoari ere bai, garai hartan horixe baitzen komunikabiderik azkarrena, eta horrela herriak eta eskualdeak hiriburuetatik zuten mendeetako isolamendua arintzeko modua ekarri zuen, eta bide horretatik iritsi ziren ere une hartan sortzen eta garatzen ari ziren ideia sozial, politiko eta kultural berriak.

Geroago, 1923ko irailaren 30ean, San Prudentziotik Oñatirako trenbide zatia inauguratu zuen Victoria Eugenia erreginak.

Horrekin batera Union Cerrajerako zuzendaritzako bazkideak gestioetan hasi ziren Arrasate Bilborekin zuzenean lotzeko Kanpanzartik zehar, Bizkaiko meategi eta kaietatik askoz ere hurbilago egoteko eta neurri berean gutxitzeko produzitzeko premiazkoak ziren burdin eta ikatzaren garraio kostuak.

Idea hori bera 1920ko hamarkadan eta 1946an ere iradoki zuten Debagoieneko udalek hala nahita, baina ez zuen inolako "oihartunik" izan goiko instantzietan.

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma. 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behe 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzezino,6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika,Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika,Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a

385. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Euskara Biziberritzeko Planak euskara bultzatuko du eragileen elkarlanarekin

MIRARI ALTUBE

Martitzenean aurkeztu zuten Euskara Biziberritzeko Plana. Hala, iaz hasitako lana jarri dute abian, eta hurrengo lau urteotarako plana da. Helburu nagusi bi izango ditu: eragileek elkarlanean jardutea eta Udalaren hizkuntza politika bideratzea.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuorde Patxi Goenagak eskerrak eman zizkien, martitzenean, Udalari eta eragileei. Eskerrak, datozen lau urteotan euskara biziberritzeko plana garatuko dugulako herrian.

LAU KIDE BERRI

“Udalek daukate arduraren nagusia euskararen arloan”, esan zuen Patxi Goenagak, “herriko egoera eurek ezagutzen dutelako inork baino hobeto”. Berba horiek aintzat hartuta, orain dela urte eta erdi inguru Udalak euskararen inguruan lan egiten zuten eragileei egin zien dei Euskara Biziberritzeko Plana abian jartzeko. Hainbat eragile elkartu ziren, tartean Loramendi Euskara Elkarteak, Udal Euskaltegia



Patxi Goenaga sailburuordea, Arritxu Oliden alkatea, Xabier Sarasua zinegotzia eta Iker Urkia Loramendi Eeko presidentea egon ziren.

eta ikastetxeak, eta Aretxabale-tako diagnostikoa egin zuten. Horren harira helburu batzuk zehaztu zituzten eta hurrengo lau urteotarako plana zehaztu.

Xabier Sarasua Euskara zinegotziaren esanetan, planak bi hel-

buru nagusi ditu: eragileek elkarlanean jardutea eta Udalaren hizkuntza politika bideratzea.

Plana elkarlanean eta elkarlanerako egindakoa da, eta hiru arlo garatu gura ditu: euskararen etorkizuna familian, eskolan eta

euskaltegian; euskararen erabilera aisialdian, merkataritzan, teknologia berrietan... eta euskara aberastea, komunikabideen bitartez, kultura arloaren bitartez edo liburugintzarekin. Hori guztia apurka-apurka lortzen joateko

hainbat helburu zehaztu dituzte eta jarraipena egingo diete.

UDALARI DAGOKIONA

Udalaren hizkuntza politika bideratzea da zehaztu duten bigarren helburua. Legez dagokio euskaraz lan egin eta zerbitzua ematea Udalari, eta horretan dabil lanean. Hala, udal zerbitzuak euskaraz eskaintzen ditu; herritarren eta Udalaren arteko harremanak euskaraz izan daitezkeen bermatu behar du; eta bideak ireki eta erraztu behar ditu ereduak emanaz.

Bestalde, udal baliabideak herritarren zerbitzura daudela argi utzi gura dute: itzulpen eta aholkularitza zerbitzuak, dirulaguntzak, laguntza teknikoak, Udalak egindako material lagungarriak, eta beste horrenbeste.

Hala, martitzena ezkerreko Euskara Biziberritzeko Plana abian da gure herrian. Eragileen lana garrantzitsua izango da, baina herritarrena ere bai. Guztiei eskatuko diete hazia ereitea, guztien artean euskara era normalizatu erabiltzeko giroa sortu gura delako herrian. Lau urte zehaztu dituzte horretarako, eta tartean jarraipena egingo diote planari.

KARMELE AGIRREGABIRIA /EUSKARA BATZORDEKO KIDEA

“Herri guztiek behar dute halako plan bat euskarari bultzada emateko”

Zenbat denbora jardun duzue plana egiten?

Erabilera plana aspalditik dago abian Aretxabaletan, 1997a ezkerreko hain zuzen, baina Udal barruko plana bakarrik zen. Gaur aurkeztu dugun Euskara Biziberritzeko Plan horretan 2004an hasi ginen lanean, eta orain, aurkezpenarekin, abian jarri dugu.

Lehendik baldin bazegoen plan bat, zein berezitasun dauka bigarren honek?

Esandako moduan lehenengoa Udalaren normalizazio plana izan zen eta oraingo hau zabalagoa izango da, eragile guztiak hartuko ditu kontuan: eskolak, merkataria, elkarteak,

aisialdiko taldeak, enpresak... Euskarari bultzada emateko guztion indarrak batzea du, hain zuzen, helburu.

Eta eragileen arteko elkarlan hori zela egingo duzue?

Euskara batzordean hartzen dugu parte euskararen inguruan lan egiten dugun eragile guztiok, eta bertatik ateratzen dira elkarlanerako talde paraleloak.

Lau urterako plana da; jarraipena beharko du, ez?

Bai, Jarraipen batzordeak egingo dio, hain zuzen, jarraipena. Aretxabale-tako diagnostikoa ezagutu genuen lehenengo Euskara batzordeko kideok, eta guztion artean hainbat helburu finkatu genituen Eragileen



batzordean. Orain helburu horiei jarraipena egin beharko diegu, politiki-poliki betetzen joan daitezkeen.

Aretxabaletan behar genuen halako planik?

Bai, herri guztiek behar dute. Aretxabale-tako datuei erreparatu gero, kale erabilerak behera egin duela ikusiko dugu 2001 eta 2003 artean. Datu puntuala da eta kalean neurtutakoa, hortaz, ez da hortik atera behar, baina kalean gero eta euskara gutxiago entzuten dela ere egia da. Hortaz, bai, behar genuen eragileon indarrak batu eta euskarari aparteko bultzada emateko. Eragileoz gain herritarrek ere parte hartu beharko dute planean.

FARMAZIEN TXANDA

ZAPATUA, 25
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 26
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

Alimen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati) 943 78 28 00



**LURRINDEGIA
OPARI DENDA**

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABAETA

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
ARETXABAETA
Tel.: 943 79 01 28



Arrasto bakarra oinatza izan behar dela gogorarazteko kanpaina jarri dute abian.

**Animalien gaineko araudia
gogorarazteko kanpaina**

M.A.

Hau izan dadila bere arrasto bakarra leloarekin txakurren jabeek dituzten betebeharrak gogorazi gura ditu Udalak. Ordenantzak jasotzen ditu betebeharrak horiek guztiak, baina antza inork gutxiak betetzen ditu. Hortaz, etxe guztietan banatu dituzte esku orriak guztiok gogora ditzagun.

Iazko maiatza ezkerro daukagu animalien gaineko udal ordenantza herrian. Bertan, animalien jabeek dituzten betebeharrak eta eskubide guztiak daude jasota. Etxe guztietara banatu zuten orduan, guztiok, batez ere animalien jabeek, eskura izateko. Banatu bai, baina betetzea beste kontu bat da antza.

TXAKURREN JABEENDAKO

Udal ordenantza jasotzeko **Hau izan dadila bere arrasto bakarra** kanpaina jarri du abian Udalak. Txakurren jabeendako da batez ere kanpaina, eta errespetuaren aldeko deia egiten du, herritar guztiok lasaia gogora eta gusturago ibiltzeko.

Txakurrek txiparekin identifikatuta eta txertoa jarrita izan behar dute, eta jabeek ondo zaindu behar dituztela ez dago esan beharrik. Kanean lotuta eramatea gomendatzen dute, herritar askok dietelako beldurra, eta noski, sekula ez utzi zikinkeriarik ez kanean, ezta lorategietan ere. Aretxabaletako Udalak poltsa bereziak ditu kaka horiek jasotzeko, hortaz, udaletxeko harrerara joan besterik ez dago eskatzeko. Udal ordenantzaren arabera kakak lurrian utzi gero isuna ipiniko diote txakurraren jabeari.

ESPEZIE ARRISKUTSUAK

Bestalde, etxeetan banatu duten esku orriak gogorazi gura du espezie arriskutsuko animaliarik edukiz gero baimen berezia behar dela. Udalak ematen du baimen hori, baina azterketa bat gaintu behar du jabeak lehenengo. Erantzukizun zibileko aseguruia ere derrigorrez izan behar du jabeak, eta hala ere, uhalarekin lotuta eta muturrekoarekin eraman behar da aipatutako animalia.

Errespetuaren aldeko deia horrek erantzunik izanez gero laster igarriko diegu lorategiei.

Zapatuetan 20:00etan eta domeketan 11:30ean mezak

M.A.

Parrokian esaten dituzten mezen ordutegiak aldaketak izango ditu aste bukaeratik aurrera. Oporrak datozela eta, zapatu eta jai bezperetan 20:00etan izango dira mezak, eta domeka eguerdian 11:30ean. Meza biak gazteleraz eta euskaraz esango dituzte.

Udan sartu berri gara, eta Andre Mariaren Zeruratzeko parrokian aldaketak egin dituzte mezen ordutegian. Bihar, zapatua, hasi eta iraila bitartean udako ordutegia izango dute mezek. Hala, zapatu eta jai bezperetan esaten duten meza ordu erdi atzeratu dute eta 20:00etan esango dute. Domeketako meza nagusia, ostera, aurreratuta egin dute eta 11:30ean izango da; gainera, domekako bakarra izango da. Bai dome-

kakoa, bai zapatukoa gazteleraz eta euskaraz esango dituzte.

Agustindarren komentuan esaten dituztenek, berriz, ez dute aldaketarik izango: astegunetan 19:00etan, hiletak izan ezik —horiek parrokian egingo dira— eta domeketan 09:30ean.

BAZTANERA TXANGOIA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako pastoral barrutiko kideek txangoa egingo dute bihar, ekainak 25, Nafarroara. Azken urteotako ohitura da txangoarekin ematea bukaera ikasturteari, eta aurtengoa, Baztan aldean aukeratu dute. Urdazubiko kobazulora egingo dute bisita lehenengo, eta Elizondo eta Arizkun ikusiko dituzte gero. Hain zuzen, Arizkun bazkalduko dute. Bertizko jaurerrietik pasatuta itzuliko dira 21:00ak aldera. 40 lagunek baino gehiagok eman du izena eta autobus bakarrean joango dira guztiak.



Agur ikasturteari eta ongi etorri oporrei

Dagoeneko oporretan daude ikastetxeetako ume eta gaztetxoak. Aurretik, baina, jaialdiak eta azken agurrak egin dituzte. Basabeazpi gunekoek, esaterako, martitzenean egin zuten abesti eta dantzekin osatutako jaiak. Pausoka Haurreskolako umeak dira ikasturtea uztailean bukatuko duten bakarrak. /M.A.

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Iber

★ Loteria ★
✻ Paper denda ✻
✻ Liburuak ✻

Otalora 2.
ARETXABAETA
Tel.: 943 79 04 39

EZBUTU
TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Mirandako eta Gasteizko txapelketak irabazi ditu UDAko infantilen taldeak

M.A.

Ekain goxoa izan du Aretxabaleta Kirol Elkarteko infantilen mailako futbol taldeak. Liga bukatu ostean bi txapelketa jokatu ditu, bata Miranda de Ebron eta bestea Gasteizen. Biak irabazi zituen Iban Rodríguezek entrenatzen duen taldeak.

Joan zen ekainaren 4an infantilen mailan jokatzeko taldeek txapelketa jokatu zuten Burgosko Miranda de Ebro herrian. Sei talde ibili ziren norgehiagokan: lau gipuzkoarrak eta bi Burgoskoak. Aise irabazi zituen talde aretxabaletarrak lehenengo faseko partidu biak, eta finala Miranda bertako taldearekin jokatu behar izan zuen. Baina ez zuen arazorik izan eta bi golekin ematen duten lasaitasunarekin bukatu zuten partidua.

Hurrengo aste bukaeran Gasteizko San Martin Kirol Elkarteko txapelketa jokatu zuten. 10. urteurrena ospatzeko antolatu zuen txapelketa aipatutako kirol elkarrekin, eta bertako taldearekin batera aretxabaletarrak eta Real Sociedad aritu ziren. Han ere garaipena lortu zuten, eta Aritz Urrutia jokalariek, gainera, txapelketako jokalarirenaren saria jaso zuen.

Denboraldi ezin hobea egin du Iban Rodríguezek taldeak eta Gipuzkoako onenen artean dago.

**Aritz Urrutiak
Gasteizko
txapelketako jokalarirenaren saria
jaso zuen**



Gipuzkoako talde onenen artean 6. postuan dago Iban Rodríguezek gidatzen duen infantilen taldea.

ERRETRATUZAHARRA

Urkiolara, ezkongai izaten jarraitzeko

Astelehenean izan zen San Antonio eguna, eta ohitura da Urkiolan dagoen santuari senargia edo emaztegaia eskatzera joatea. Egunkarian azaldutako erretratua orain dela 15 edo 20 urte argitaratu zuten, eta ez dakit nik emaztegaia eskatzera joan ziren Pedro Zubizarreta, Daniel Uribetxebarria eta Pedro Urteaga. Eguraldi eskasa egin zuela argi dago, baina aretxabaletarrak pozik datoz bueltan, erroskila eta berakatz sortak aldean hartuta.

Argazkia eta informazioa: Aitor Antxia Leturia

Cuadrillas de solteros se desplazaron ayer hasta Urkiola, en una peregrinación ya tradicional, para suplicar al Santo Antonio un año de prórroga en su soltería. Acompañados de un burro, uno de los grupos puso la nota festiva y de color a una jornada climatológicamente gris.

URKIOLA Los solteros pidieron un año de prórroga a San Antonio

La celebración ayer en Urkiola del día San Antonio tuvo carácter a menor escala, debido al empapamiento del tiempo, con nieblas muy bajas, frío y lluvia intensa. Si el sábado las camadas se inundaron de vehículos desde primeras horas de la mañana pese a la lluvia, la jornada de ayer fue mucho más tranquila en cuanto a concentración de personal se refiere, puesto que la climatología fue todavía más adversa. Aun así, fueron bastantes los asistentes que subieron a la cima en el momento de los actos religiosos.

Los actos religiosos, tan concurridos cada día de la festividad del Santo, tuvieron también ayer horario contínuo desde las nueve de la mañana hasta las doce del mediodía, siendo este último servicio oficiado por el obispo auxiliar, monseñor Urteaga, que contó con la participación del coro de la iglesia. Los trileraris y el grupo de danzas Ilintza de Mattena-Abadiño, pusieron la nota festiva a la jornada cuya máxima atracción fue la protagonizada por una cuadrilla de solteros que, en su soltería, el grupo compuesto por alrededor de 30 personas, muchos de los cuales subieron a pie, hizo acto de presencia en la cima y puso la guinda de alegría recorriendo las carpas y las tabernas con buen humor a pesar del mal tiempo reinante. Capitanesados por el soltero de oro, Juanjo Gasa,



El frío, la lluvia y una baja niebla provocó en Urkiola un descenso de los visitantes en el día de San Antonio tal y como se ve en la foto de Ibañeta.

ocasion, con cestas adornadas, etc. La tradición religiosa es, junto a la celebración festiva, algo costoso para los Sanantoniños en Urkiola. Con todo, este año el Santo tendrá menos trabajo en hacer realidad las oraciones, incluso de novios, que por algo es el Santo casamentero o simplemente para pasar el día en las atractivas campas que rodean el Santuario. Los actos religiosos tendrán a tener cita en Urkiola el día de Corpus Christi en una Misa mayor presidida por monseñor Víctor García-Rodríguez.

ORLYA

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

Mortin
erriju-denda

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

ATREBENTZIAEZPADA/ Udan sartu gare astien eta bero egingo ei dau. Zela egingo dutzezu aurre beruei?



MAIALEN GARCIA
Langillie



BLAS CASCON
Langillie



ENCARNA MENDEZ
Langillie



JULEN LARRINAGA
Langillie



ANA NOGUEIRAS
Langillie



IÑIGO ARISTONDO
Langillie

Ez dakit ba... Basora fan izen naz, arbolak dauzen lekuen kerizpetan egoteko. Ahal izen ezkerro behintzet ez naz geraketan herrixen: igerilekure Gamarrara edo hondartzara...

Pagadixek die oso egokixek fresko-fresko egoteko, urtegi inguruetan bero pasetan dalako uretan ez bazauz. Gabien, barrez, lur azpiko garajie dauket eta edarto egoten da bertan.


Kerizpetan egon ahal dan denpora dana, ez dau beste erremediorik. Gabien lo egitako manta meheie atara eta ahal dan freskuen egon biher leihuek zabal-dute.

Kostaldera fan biher haixe apur bat topetako eta sarrisari uretan sartute freskakaketo. Gabien, ostera, leihuek zabal-zabal egin eta kantzontzillotan egin biher lo trankil.

Hondartzara faten gare normalien, baiñe abuztuen ez gare hamen egoten, Galiziara faten gare. Gabetan zoezer hartzera urten biher lelengo eta gero lo egitako leiho danak zabaldu biher.

Hondartzara fan biher eta baiñutxo batzuk hartu. Gabien manta danak kendu eta izerie bakarrik ibilli. Leihuek apur bat zabaldu, guztiz badaezpada ez, bestela iguel hotzittu.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK UMEENDAKO EKINTZAK Sarri entzuten dugu kalean umeendako gero eta ekintza gutxiago antolatzen dutela, gero eta leku txikiagoa dutela jolas egiteko... Joan zen egubakoitzean pailazoak izan zituzten Algara ludotekaren eskutik. Ez zen beste munduko ikuskizuna izan, ez ziren pailazo entzutetsuak, baina ikuskizun apalarekin aho zabalik izan zituzten ume zein gaztetxoak. / M.A.

ORAINDELA3URTEARETXABALETAN

Erabilitako olio batzen hasi ziren gure herrian

Sukaldeko olio batzen hasi ziren Aretxabaletan 2002ko ekainaren 24an. Erabilitako olio arraskatik bota beharrean gordetzeko eskaera egin zuen Udalak. Orduetik hona hileko azken astelehenetan etortzen da olioak jasotzen dituen automobila azoka egiten den lekura, Belorrieta auzora.



ASTEKODATUA

300

ERAGILE GONBIDATU ZITUZTEN EBPEN-REN AURKEZPENERA

Martitzenean egin zuten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiren aurkezpena, eta Udaleko Euskara batzordeak 300 eragile gonbidatu zituen ekitaldira: elkarreetako kideak, enpresaburuak...

BESTEKEESANA

Ezin dira lehen mailan egon ziren 20 minutuak bakarrik ikusi; denboraldi osoa begiratu beharra

dago, eta ez dut uste Eibarren kexatu ahal izango direnik bere taldeak egin duen denboraldiarekin. (...) Igotzea gehien merezi zuen taldea izan da, baina futbola horrelakoa da, eta askotan gehien merezi duenak ez du fruiturik jasotzen.

IGOR ARENAZA
'Asteleheneko Goienkaria'/06-06-20

Joko oso polita erakutsi dute, zaleei ilusioa ekarri diete, errespetua sortu du eta guztira 73 puntu lortu ditu. Hori guztia lortzea Eibar bezalako talde batentzat txapela kentzeko modukoa da.

JOSE JAVIER BARKERO
'Asteleheneko Goienkaria'/06-06-20

HERRITARRENBERBAK/ Arrate Arkauz



Maite ditut, maite, gure bazterrak...

Sarritan komentatu izan dut nire lehengusinarekin, zer izango ote diren gure inguruak, hemen-dik urte batzuetara. Sinestezi-na badirudi ere, apur bat aurrera begira jarrita, ez ditut gure zelaiak hain berde ikusten, ezta basoak orain bezain txukun ere, pagadiak ez dira pinudiak beste izango eta sasiak, zorionsu izango dira bazter guztietan.

Garai batean lur sail zirenak, orain lantegi, etxe edo onenera jota ere, zelai edo pinudi dira. Orduan, garia, artoa, arbia, erremolatxa... egunero-ko lanbide zena, orain, gertuen, Gasteizko bidean ikusten ditugu.

Askotan entzun dut etxean: "Hau, gure aitona amonek ikusiko balute..." Haiek, lanera ohituak zeuden. Erlojurik gabé, eguzkia ateratzen zenetik, ezkututzen zen arte. Dozena erdi bat ume hazi eta gainera, baserria aurrera atera. Baba eraiteko garaia ez bazen,

belarretan egin beharra, edo satsetan, edo gurdia hartu eta orbel bila basora edo... mila lan, eta orduan ere, egunak hogeita lau ordukoak!!!

Orain, baserri askotan ez da animaliarik ere, ez dute zelai beharrik eta inguruko baserrietakoei uzten die,

"Garai batean lur sail zirenak, orain lantegi, etxe edo onenera jota ere, zelai edo pinudi dira"

beraien ustiapenerako. Baina nire galdera da: "Noiz arte?" Zorritzarrez, gauzak asko aldatzen ez badira, hau ere, amaituko den egun bat ikusten dut: baserrietan ez da animaliarik izango, belar beharrik ere ez eta zelai

eta inguruak sasiz josiko diren garaia iritsiko da.

Auskalo nongo idizkoen txuletekin gozatu beharko dugun eta bildotsa burduntzira jaten dugunean, ez dugu bere hizkuntza jakingo eta are gehiago, ume txikiei baba eta patata nondik datozen galdetzean, dendan erosten direla erantzungo digute.

Egia esan, asko gara baserrikoak, baina gutxi baserritarrak...

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aretxabaletako Udala

Eskoriatzako Udala

Leintz Gatzagako Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a / 214. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

TURISMOA ETA KULTURA/Eskoriatzako baliabide turistikoak aditzera eman gura ditu Udalak

Ibarraundiren inaugurazioa eta DVD eta triptikoen aurkezpena, astelehenean

IKER BARANDIARAN

Astelehena egun berezia izango da eskoriatzarrendako. Izan ere, egun horretan egingo dute Ibarraundi museoaren inaugurazio ofiziala. Eta horrekin batera, herriko turismo baliabideak aditzera emateko, ikus-entzunezkoa eta triptikoa aurkeztuko dituzte.

Udalak aspalditik dauka Eskoriatzako turismo baliabideak aditzera emateko asmoa. Ibarrean, Arantzazu, Oñati eta Bergara dira gune bisitatuena, eta Udalak saiakera egin gura du horietako bisitari batzuek Eskoriatzara hurreratzeko. Erakusteko moduko gauza eta paraje ugari dituzte, eta horiek modu egokian ustiatzeko formula asmatu dute.

Helburu hori lortzeko lanean dabilta aspalditik, eta astelehenean pauso garrantzitsu bat emango dute. Ibarraundi museoaren inaugurazio ofiziala egingo dute.

2003an hasi zituzten jauregi hori egokitzeko lanak, eta 2004ko martxoan bukatu zituzten. Orain arte proiektua bera osatzen joan dira, eta dagoeneko aditzera emateko unea heldu dela erabaki dute.

Inaugurazio ofizialerako, Jaurlaritzako, Aldundiko eta Ibarreko udaletako hainbat ordezkari gonbidatu dituzte, baita ere museoarekin hartu-eman izan duten hainbat herritar. 17:00etan izango da ekitaldia,



Udalerrira bisitariak erakarri eta bertan dauden altxorrek erakusteko ekimenak aurkeztuko dituzte.

eta proiektu horren helburuak azaltzeaz gain, museo bera eta dituen edukiak erakutsiko dituzte. Horrez gain, udalerrian eta museoaren gainean Arteman enpresak egin dituen ikus-entzunezkoa eta triptikoa aurkeztuko dituzte. Guzti hori gutxi balitz, museoaren behin betiko logotipoa aldatzeko egin dizkiote-

*Ibarraundin,
udalerrian eta
ibarrean zer dagoen
erakusteko ahalegin
handia egin dute*

eta webgunea ere erakutsiko dituzte jendaurrean.

IKUS-ENTZUNEZKOA ETA TRIPTIKOA
Ikus-entzunezkoa eta triptikoa bisitariak museoan, Eskoriatzan eta Debagoienean ikusiko dutenaren aurkezpen moduan baliatuko dituzte. Arteman enpresak egin ditu biak, eta bietan ere

eskema bera jarraitu dute: lehenik eta behin, Eskoriatzara etorririko diren lagunen harrera-puntua izango den Ibarraundi zer den erakustea eta azaltzea, hain zuzen.

Horren ostean, Eskoriatzaren historiaren gainbegiratu laburra egingo dute, eta herrian dauden jauregi eta eraikin garrantzitsuenak eta elizateak dituzten altxorrek deskribatu eta azalduko dituzte. Behin hori guztia jasota, udalerrira kokatuta dagoen ibarrean zer beste gauza ikus daitezkeen jasotzen dute.

IBARREAN ETA KANPOAN ZABALDU

Udalerrian aurkezpen moduan egin dituzten triptikoak eta ikus-entzunezkoak ibarrean eta kanpoan zabaltzeko asmoa dute, modu horretan bisitariak erakartzeko. Guztira, 3.000 triptiko kaleratu dituzte, eta ikus-entzunezkoa DVD formatuan eskuratzeko aukera ere izango da.

Guzti horrez gain, hainbat produktu sortu dituzte, salgai jarriko dituztenak: kamisetak, belarritakoak, giltzatak, intsigniak, eta abar.

MUSEOA BAINO ASKOZ GEHIAGO

Orain dela gutxi erabaki zuten Ibarraundi museum beharrezko museo deitzea. Horregatik, logotipoari aldaketa txiki bat egin zioten. Ibarraundin hainbat erakusketa iraunkor eta behin-behinekoak egiten jarraituko dute, baina hemendik aurrera informazio-bulegoa ere izango da.



leniz sa
fundizioak

Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA
www.fundiciones-leniz.com

Jai zorientsu eta alaiak
izan ditzazuela!

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaltehea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

MENDIOLAKO JAIAK

Atzotik, eguena, domekara arte San Juan jaiak ospatuko dituzte. Gaur, egubakoitza, San Juan meza egingo dute eta lore sortak bedainkatuko dituzte. Zapatuan, XIV. Mus eta Briska Txapelketa egingo dute erretegian, 17:00etan. 20:00etan, arimen aldeko meza; eta 21:00etan, auzo afaria erretegian. Afaloste-an, karta jokoen sari banaketa, eta Quintanillarekin dantzaldia.

EVEK ETA EUDELEK SARIA EMAN DIOTE UDALARI

Eguzkiaren energia erabiltzeagatik, saria

A.L./I.B.

Eskoriatzako Udalak energia saria jaso du eguzki fotovoltaiko modalitatean. EVE eta Eudel erakundeetako ordezkariak eman zioten sari hori Udalarari ekitaldi berezi baten. Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoa eta Udaleko beste ordezkari batzuk izan ziren ekitaldian.

Energia aurrezteko egin duen ahaleginarengatik jaso du saria. Izan ere, badira pare bat urte kiroldegiko teilatuan eguzki-ener-

gia aprobetxatzeko plakak jarri zituztela. Horri esker, aspaldi honetan energia elektriko dezentz aurreztu dute. Hain zuzen, horixe saritu gura izan dute erakunde horiek. Eskoriatzakoaz gain, Gasteizko, Bakioko eta Balmasedako udalak ere saritu zituzten.

ENERGIA AURREZTEN JARRAITU

Alkateak azpimarratu zuen Udalak ahalegin horretan jarraituko duela, eta herriko eraikinetan eta argiztapen publikoan energia zelan aurreztu aztertuko dutela.



Argazkian, alkatea EVE eta Eudeleko ordezkariekin.



Ikasturte bukaera Jose Aranan

Martitzenean, Arizmendi ikastolako Jose Arana gunean ikasturte bukaerako jaiak egin zuten. 0 eta 6 urte bitarteko ikasleak eta gurasoak ospatu zuten jaiak.

Ikasleak hainbat ikuskitan egin zituzten. Horren ostean, azken ikasturteko gaztetxoei diplomak banatu zizkieten. Miren Arenaza andereñoa penaz gelditu zen, ikasleak badozelako. Horren ostean, gurasoak hainbat joko eta proba egin behar izan zituzten, eta indarberritzeko luntxa egin zuten. /I.B.

TOKI-ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29 ESKORIATZA

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel.: 943 71 47 36
Eskoriatza



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

San Pedrotan zatoz geurera

Bazkari eta afariak
Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Mendiola auzoa
943 71 43 45



Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko ekainaren 24a / 156. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aramaioren beharrak helarazi dizkie alkateak Arabako Batzar Nagusiei

UBANE MADERA

Aramaioren arazoak eta beharrak jakinarazi dizkie Mertxe Mondragonek Batzar Nagusiei. Besteak beste, jakinarazi die kostu handia dela Udalarendako herriko errepideak ondo zaintzea eta azpiegiturak-eta sartzak finantzazio handia eskatzen duela.

Batzar Nagusiak Foru Arauaren aldaketa aztertzen dabiltzala-eta, Arabako zenbait udalerritako alkateei dei egin diete euren ikuspuntuak eta proposamenak azaltzeko, herri bakoitzaren egoera kontuan hartuta. Ezaugarri berezidun udalerritako ordezkariak dei egin diete Batzarrek. Aramaioren kasuan, herriko auzoen dispersio egoera dela-eta deitu dute alkatea. Laburbilduta, honako hauxe landu zuten:

FORU ARAUAREKIN LOTUTA

Lehenengo eta behin, Foru Arauarekin lotutako proposamenak aurkeztu zituen Mertxe Mondragonek. Foru Araua da, besteak beste, Arabako udalerrien finantzazioaz arduratzeko ezarritako araua. Horren arabera, aurrekontuaren %54 ematen diete Arabako udalei, euren funtzionamendurako. Aramaioko alkatearen ustez, berriz, komenigarria da kopuru hori handitzea. Halaber, udal bakoitzari ematen dioten kopuru finkoa handitzea ere eskatu zuen: 21.035 eurotik 90.150 euroraino.

Horrez gainera, nabarmendu zuen Aramaio moduko herriendako oso garrantzitsuak direla koadrilak: "Ezinezkoa litzateke udalek euren kabuz, koadrilen laguntza barik, kalitatezko zerbitzuak ematea, horren kostua larregikoa da-eta guretako". Udalendako eta koadrilendako autonomia handiagoa ere eskatu zuen, finantzaziorari dagokionez, batik batik koadrilei egokitzen zaien finantzazioa handitzeari dagokionez.

Eskatu zuen, baita ere, obrendako dirulaguntzak emateko orduan, udalerriek dituzten oinarriko beharrei lehentasuna ematea, esaterako, azpiegiturak: saneamendua, argiteria... Horrekin batera, eskatu zuen ezaba deza-



Alkateak nabarmendu zuen Aramaio moduko kasurik ez duela ezagutzen Arabako Lurralde Historikoan.

tela dirulaguntzen bateraezintasuna zehazten duen Foru Arauko artikulua. Eta laguntzak eskatzeko erabiltzen duten tramitazio sistema aldatzea proposatu zuen, errazagoa ipintzeko.

ARAMAIOREN GAINEAN

Hori guztiori azaldu ostean, Aramaiok dituen arazoak azaldu ziz-

*Aramaioko auzoen
dispertsio egoera eta
horrek eragiten
dituen zailtasunak
nabarmendu zituen*

kien batzarkideei. Lehenengo eta behin, herriko auzoen dispersio egoera eta horrek eragiten dituen zailtasunak nabarmendu zituen: "Aramaioko ibarraren egitura horrek egiten du Aramaio idilikoa izatea paisaia aldetik, baina udalerritari ahalegin berezia eskatzen dio egoera horrek, askotan gainezka egiten digu eta ezin gara leku

Kontsiderazio berezia, Aramaiorendako:

Udalerrindako finantzazio handiagoa eskatu zuen. Eta, horrez gainera, obrendako dirulaguntzak emateko orduan oinarriko beharrei lehentasuna ematea.

Horrez gainera, Aramaiok dituen arazoak azaldu zituen, esaterako, Aramaioren egiturak (oso sakabanatuta dauden auzoak) ahalegin berezia eskatzen diola Udalari eta askotan ezin izaten dietela

behar guztiei aurre egin. Adibidez, Arexolako lanek 480.827 euroko kostua dute eta Salgo-Errotabarrikoek 300.500 eurokoa. Horren harira, alkateak nabarmendu zuen Aramaion oinarriko edozein azpiegitura egiteak bestelako proiektuak finantzatzeko aukerak agortzen dituela.

Aramaiorendako finantzazio berezia ere eskatu zuen alkateak.

guztietara iritsi eta ezin diegu aurre egin behar guztiei. Aramaion, oinarriko edozein azpiegitura egiteak (argiteria, saneamendua...) bestelako proiektu edo zerbitzuak finantzatzeko aukerak agortzen ditu".

DATUAK ZENBAKITAN

Batzarkideek herriaren egoera argiago ikusteko, datuak eman zizkien Mertxe Mondragonek: Aramaiok ditu etxeko ura garbitzeko lau araztegi; 52.000 metro ur-hodi; 22 putzu beltz; 20.000 metro errepide bere kargura; bederatzi hilerrri; gas propanoaren zortzi biltegi eta 16 argiteri publiko.

Herrian zenbait lan egiteak duen kostuaren berri ere eman zuten: Arexolako lanak egitea (zolatzea, saneamendua...): 480.827 euro; Eguzkierripakoak beste horrenbeste: Salgo-Errotabarrikoak 300.500 euro baino gehiago eta adibidez, herriko uren analisiak egitea 46.700 euro pasatxo kostatzen da. "Ikus dezakezue, Aramaio baino dezente handiagoa den edozein udalerririk duen kostua baino handiagoa da kostu hori. Guztia Aramaioren orografiak eta dispersio egoerak eraginda". Horrez gainera, zerbitzu guztien mantentze-lanez arduratu beharra dago.

ZAILTASUNAK UDALARENDAKO

Eta hori guztiori Aramaiorendako karga dela esan zuen alkateak: "Ausartuko nintzateke esaten Arabako Lurralde Historikoko administrazio batek ere ez duela halarik jasaten. (...) Adibidez, gaur egun baditugu obra batzuk 2000ko Foru Planak onartuta, baina oraindik ezin izan ditugu egin Udalak ezin dituelako finantzatu. Dena den, aurten egitea espero dugu". Zera ere gaineratu zuen: "Horrek guztiak ezinezko egiten du erre-kurtsoak izatea beste mota bateko zerbitzuetarako. Esaterako, Aramaion, nahiz eta 1.500 biztanle izan, ez dugu igerilekurik ezta hura egiteko aurreikuspenik ere".

Horregatik guztiagatik, zera eskatu zuen: "Kontsidera dezazue Aramaiok finantzazio berezia behar duela, nik ez dut-eta antzerako kasurik ezagutzen Arabako Lurralde Historikoan".

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

SAN JUAN JAIK AZKOAGAN

Atzo, eguena hasi ziren auzoko jaiak ospatzen azkoagarrak. Besteak beste, San Juan sua egin zuten eta Azkoagako *sorginen* bisita izan zuten. Eta gaurko eta biharko ekitaldi gehiago antolatu dituzte. Esaterako, 18:00etan mus eta briska txapelketa jokatu dute eta 19:00etan, Pantarey kalé antzerkia izango da, plazan. Bihar, berriz, 12:00etan auzoko hildakoen aldeko meza esango dute eta 17:00etan puzgarriak izango dira, gaztetxoentzako.

OMENALDIA UNDARI, ETA UDALETXEAN ATEAK ZABALIK

San Martinak aprobetxatu eta borroka libreko Estatuko txapelkunari ondo merezitako omenaldia egitea erabaki du Udalak. Uztailaren 3an izango da. Besteak beste, mezaren ostean Udaletxean ekitaldi berezia egingo dute Oletako borrokalaria omentzeko. Horrekin batera, Udaletxean berritze-lanak egin dituztela-eta, egun bera aprobetxatu nahi dute herritarrei aukera emateko Udaletxea ikusteko; hori ere mezaren ostean izango da, bazkalordura arte-edo.

Jaien ostean, udako ikastaroak: Euskal Herria 1789-1848

U.M.

Uztailaren 4tik 7ra egingo dute Aramaioko IV. Uda Ikastaroa. Arratsaldean izango dira eskolak, 16:00etatik 20:00ak arte. 1789-1848 bitarteko Euskal Herriaren historia, hizkuntza eta artea aztertuko dituzte. 14 adituk berba egingo dute; tartean, Andres Urrutia euskaltzainburua izango da.

Euskal Herriarendako horren erabakigarria izan zen 1789-1848 garaia ikuspegi zabala eskaintzea da Aramaioko IV. Uda Ikastaroaren helburua. 14 adituk jardungo dute horren gainean lau egunez, 50 bat minutuko hitzaldiak eginez. Horrez gainera, arratsaldero, hitzaldien ondoren, mahai-inguru bat izango da eguneko hizlariarekin.

Hitzaldiak euskaraz, espainieraz edo frantsesez izango dira, hizlariaren arabera. Aldi bereko itzulpen zerbitzua izango da euskarazko eta frantsesezko berbaldietatik espainierara.

HAINBAT UNIBERTSITATEKO HIZLARIAK

Honako hizlari hauek parte hartuko dute ikastaroan: Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak: Alberto Angulo, Jose Maria Ortiz de Orruño, Santiago Piquero, Blanca Urgell, Fernando Bartolome eta Oscar Alvarez Gila. Bestelako uniber-



Uztailaren 4tik 7ra egingo dute Aramaioko IV. Uda Ikastaroa. Arratsaldean izango dira eskolak, 16:00etatik 20:00ak arte. 1789-1848 bitarteko Euskal Herriaren historia, hizkuntza eta artea aztertuko dituzte. 14 adituk berba egingo dute; tartean, Andres Urrutia euskaltzainburua izango da.

tsitateetatik edo erakundeetatik: Rodrigo Rodriguez Garraza (Konplutensea); Pedro Mantrola (Nafarroako Unibertsitatea); Joaquin Alvarez Barrientos (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusia); Beñat Oihartzabal (Euskaltzaindia eta Iker, Centre National de la Recherche Scientifique); Fermín Arkotxa (Iker); Andres Urrutia (Euskaltzaindia eta Deustuko Unibertsitatea) eta Marie-Claude Berger (Societe des Amis d'Abbadia).

ARGIBIDEAK ETA IZENEMATEAK

Udako ikastaroetan parte hartzeko honako helbideetan eman daiteke izena edo informazioa eskatu: Hurbil Kulturgaiak, SL; Aramaioko IV. Uda Ikastaroa, 160 posta-kutxa, 20550 Aretxabaleta. Edo, aramaio@hurbilkulturgaiak.com edo www.hurbilkulturgaiak.com/aramaio.

Arabako Foru Aldundiak Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean antolatzen ditu Aramaioko Uda Ikastaroak, Henrike Knörren zuzendaritzapean.

Ildo beretik segitzeko asmoa du Txirritola elkarteak

U.M.

Orain arteko jardunaren balorazioa egiteko eta datozen hilabeteotarako helburuak finkatzeko, urteko batzar nagusia egin zuen Txirritola Euskara Elkar-teak. Balorazio positiboa egin zuen elkarteko lehendakari Txema Abarrategik: "Erronka izan da sortu zenetik hileroko ekintza bat egitea eta lortu dugu, eta batzuk

arrakastatsuek; jende dezente mugitu dugu eta uste dut euskarari mesedetxoa egin diogula".

Txema Abarrategik aipatutako ekintza horietako batzuk dira Sagardo Eguna, Esaera Zaharren II. Bertso Lehiaketa...

Aurrera begira, berriz, ildo beretik segituko dutela adierazi zuen Txirritolako lehendakariak; halaber, berritasunen bat zein beste ere izango dela.



Txirritola elkarteko kideez gainera, zenbait herritarrek parte hartu zuen batzarrean.

LABUR

Kendu egingo dituzte barikuetako zinema emanaldiak

Herritarrek erakutsitako harrera baxuak eraginda, betiko kenduko dituzte barikuetako zinema emanaldiak. Hala jakinarazi digu urte osoan emanaldi horiek antolatzen ibili den Alex Aginagaldek. Hain zuzen ere, gaurko emanaldia izango da urteko azkena. Hala adierazi digu Alex Aginagaldek: "Pena izugarria ematen dit, astero-astero etortzen diren lagun horientatik, baina azken lau asteotan ez gara 12 ikusletik pasa jende gehien etorri den saioan; gutxi gorabehera emanaldi bakoitzeko zazpi pertsona izango ginen".

Horrenbestez, hemendik aurrera, domeketan bakarrik izango dira emanaldiak.

ORAINGO ASTEKO FILMA

Barikuari dagokionez, oraingo honetan, Jean-Pierre Jeunet (*Alien: resurrección, Amélie...*) zuzendari frantziarren *Largo domingo de noviazgo* film dramatikoak aukeratu dute. I. Mundu Gerran, emakume batek bere bikotekidea aurkitzeko egiten duen ahaleginaren gaineko istorioa da. Besteak beste, Audrey Tatou, Gaspard Ulliel eta Jean-Pierre Becker aktoreek parte hartzen dute film horretan. 134 minutu irauten du. 2003-2004an grabatutakoa da.



Hurrengo ikasturtera arte, agur!

Jai giroan agurtu zuten San Martin Eskolako ikasleek 2004-2005 ikasturtea: antzerkiak, play-backa, txiste kontalariak... Ikasleak kultura etxeko taula gainean jo eta su ibili ziren, ikas-kideen eta irakasleen irribarre eta barreak pitzen. Horren ostean, ondo merezitako oporrak hartzeko garaia iritsi zaie. Hain zuzen ere, barikuan hartuko dituzte, irakasleek iraileko lehen astera arte eta ikasleek bigarrenera arte. /U.M.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a / 12. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

HIRIGINTZA/ Arlaban gaina erregulatzeko plana

Arlaban gaina antolatzekeo plana hilabete bukaerara arte egongo da ikusgai

XABIER URTZELAI / GOITB

Joan den hilean aurreratu genuen Gatzagago Udalak onartu zuela Arlaban gaineko lurak erregulatzeko. Eginda dago aurreproiektua, eta dagoeneko jendaurrean dago, Gatzagako Udaletxean. Herritarrek proiektua ikusi eta iritzia eman dezakete.

Ekainaren 30a arte (datorren eguna) egongo da aurreproiektu hori ikusgai. Toledo izeneko taldeak egin du Arlaban gaineko plan berezia, eta 701.000 metro koadroko lur eremua jaso dute. Lur horiek erregulatuta egoteko helburuarekin egin dituzte lanok, gerora, beste erabilpen bat eman ahal izateko.

LAU KALIFIKAZIO MOTA

Azterketa egindakoan, planean lau kalifikazio mota egin dituzte. Lur eremu zati handi bat Aizkorri-Aratz parke naturaleko zatia da, hortaz, lur horietan ez dago ezer egiterik. Beste zati bat zona turistiko edo baserri eremu moduan izendatu dute, eta beste eremu bat ingurumena babesteko zona moduan. Laugarren kalifikazioa, 21.000 metro koadroko lur zatia, nekazaritzako eta industriako zona bezala jarri dute.



Planean zehaztu dute lur eremu bat turismoa gehiago bultzatzeko erabil daitekeela.

Hauek Joxerra Perez alkateak GOITBri egindako adierazpenak: "Azken batean, egin duguna izan da lur eremu hori neurtu, ze lursail dagoen ikusteko. Eta orain, gatzagarrek erabaki ahal izango dute lursail horietan zer egin dai-

tekeen". Gatzagako alkatearen ustez, lur eremu bat turismoa bultzatzeko erabil daitezke. Izan ere, leku horietan dagoeneko badaude jatetxe, ostatu eta tabernak. Eta, horregatik izendatu dute turismo zona edo baserri eremu.

NEKAZARITZAKO ETA INDUSTRIAKO ZONA Amaizteko, esan digu Arlaban gaineko lurretako eremu bat nekazaritzako eta industriako zona izendatu dutela: "Eremu hori aproposa da industriarako, baina gura genuen nekazaritza eta

Toledo izeneko taldeak egin du lana, eta 701.000 metro koadroko lur eremua jaso dute

Lur horiekin lau kalifikazio mota egin dituzte. Horietako bat industriarako izango da

abeltzaintzarekin harremana izatea, eta horregatik izendatu dugu horrela". Hala, lursail horietan ez da ohiko lantegiendako tokirik egongo.

HILABETE HONEN AMAIERARA ARTE

Herritarrek jakin-mina asetzeko, eta iritzia botatzeko, aurreproiektu hori Udaletxean egongo da ikusgai ekainaren amaierara arte. Gero, iritzia batu eta aurreproiektu zehatza egingo dute. Horrek esan gura du oraindik aldaketak egon daitezkeela.

KZgune berriaren lokala egokitzekeo 420 euro ordainduko ditu Udalak

X.U.

Gatzagako Udalak dagoeneko badaki zenbat ordaindu beharko duen KZgunearen egoitza berria martxan jartzearen. 420 euroko aurrekontua jaso du.

Labidea tabernaren ondoan dagoen lokalean jarriko dute KZgunearen lokal berria, orain arte Sormen enpresa egon den lekuan. Orain arte Garro Jauregian egon

da KZgunea, ludotekarekin eta liburutegiarekin batera, eta horregatik aldatuko dute lekuz. Dena dela, Kultura zinegotzi Jon Sasiainek esan digu, uste baino garestiagoa izango dela lokal berria egokitzea: "Lehen, lokal horretan Sormen enpresa zegoen, eta uste genuen ezer gutxi egin beharko litzatekeela KZgunea martxan jartzeko. Bilboko Sermicro enpresak aurkeztu digun aurrekontua, baina, uste baino garestiagoa da".

Lanok egiterakoan, besteak beste, ordenagailu guztiendako Interneteko konexioak jarri beharko dituzte, eta erregistro kutxa: "KZguneak lau ordenagailu jarriko dituzte. Bat irakasleendako izango da, eta gainontzeko hirurak herritarrendako. Eta, Udalak beste bi ordenagailu jarriko ditu, gatzetxoendako. Esan ez badigute ere, lanok uztailan egingo dituztela uste dut. Ez dut uste asko luzatuko direnik".



Sormen zegoen tokian jarriko dute KZgune berria.



San Pedro jai zoriontsuak igaro!

FAGOR 

**ELEKTRATRESNA
TXIKIKO
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)



**Maulanda
merenderoa**

Gora
San Pedroak!

Maulanda auzoa. ESKORATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Zoru aukera zabala
 Tarimak
 Parket flotatzailak, bernizatuak
 eta estratifikatuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
 Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
 AROZTEGIA
 Telleria 19, B-0-2 B-0-3
 BERGARA
 Tel.: 943 76 47 19
 610 884 020

ARDATZA
 Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
 Tel.: 943 76 18 93
 BERGARA



DAGDA



Belorrieta 3, behea ARETXABALETA Tel.: 943 71 25 96

*Egunero irekita goizeko 8etatik gaueko 12ak arte
 Larunbat eta igandeetan 10etatik goizaldeko 1,30ak arte*

- Gosariak
- Era askotako pintxoak
- Inportazioko garagardoak
- Kafeak
- Kopak
- Giro ona
- Udako terraza

Konpainia ezin hobean garagardo on bat gozatzera etor zaitez!

